



JAI BUSean, bezeroak ezinbestekoak dira proiektua aurrera eramanez ahal izateko, haiek gabe proiektua aurrera eramatea ezinezkoa delako, orduan harreman egokiena eskainiko diegu. Bezeroekiko harremana bi motatakoa izango da, aurrez aurrekoa eta sare sozialen bidezkoa.

Alde batetik, bezeroek zerbitzua erabiltzerko orduan jasoko duten harremana aurrez aurrekoa izango da nahiz eta teknologia erabiliko den. Bai bidaia eta bai janaria eta edaria erosterako orduan gidariak beteko du zerbitzu hori, aurrez aurrekoa izango dena eta dena txartel digitalarekin ordainduko dena, interneten bidez errekaratu ahalko dena.

Bestetik, sare sozialen bidezko harremana izango dugu, Instagramekoa hain zuzen ere. Bertatik, JAI BUSaren informazioa emango da eta bezeroek galderak, eskaerak eta kritikak egin ahalko dituzte.